

Adolfo Morais Ezquerrok, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordeak, 2024ko apirilaren 30eko Hezkuntza sailburuaren, 2024ko bigarren sei hilekoan kongresuak eta zientzia-bilerak egiteko laguntzetarako deia egiten duen aginduan (EHAA 97 zk. maiatzak 20), bere 8. artikuluan ezarri bezala, eta batzordeak proposatutakoa kontuan hartuta, honakoa

E B A T Z I D U

Lehenengoa.- I. eranskinean agertzen diren onuradunei Kongresuak eta zientzia-bilerak egiteko laguntzak ematea. Onuradun bakoitzari emandako dirulaguntza honekin batera doan emandakoen zerrendan jasota adieraztea.

Bigarrena.- II. eranskinean jasota agertzen diren baztertuen zerrenda onartzea, arrazoiak zehaztuz.

Hirugarrena.- Ebazpenaren aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtoa jarri ahal izango diote Zientzia, Unibertsitateak eta Berrikuntza sailburuari, argitaratu eta biharamunetik hasita, hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, sinatzen den egunean

ADOLFO MORAIS EZQUERRO
UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILBURUORDEA